PASAIAKO UDALA
www.pasaia.eus IFK/CIF P2006900A
Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia
Tel: 943 344034 / Faxa: 943 515447
Arlo Ekonomikoa
943 344147 - 943 344157
ekonomia@pasaia.net



# 2022KO AURREKONTUA

## AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA
## NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA

## KONTZEPTUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.3.c artikuluak dioenez: “Aurrekontu orokorrean 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako agiriak ez ezik ondoko hauek ere egon behar dira: (...) c) **Aurrekontuak Gauzatzeko Araua**: bertan, besteak beste, nahitaez agertu behar dira bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak, erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkionak”.

9. artikulua: “Toki erakundeen aurrekontu orokorretan Aurrekontuak gauzatzeko Araua egon behar da; bertan aurrekontu arloko xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara **moldatu** behar dira eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egingo dira. Gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokietsi eta komeniesten diren ohartarazpenak ezarriko dira. Ekonomi administrazioari buruzko legeria ezin alda daiteke, ez eta aurrekonturako aurreikusitakoa ez beste prozedura eta formalitate bereziak behar dituzten administrazio manuak ezarri ere”.

## CONCEPTO Y JUSTIFICACIÓN

Según establece el artículo 6.3.c de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa: “Los Presupuestos Generales se integrarán por la documentación a que hacen referencia los apartados 1 y 2 (...), más los siguientes documentos: (...) c) La **Norma de Ejecución Presupuestaria**, que entre otros extremos deberá contener necesariamente, los límites máximos de prestación de garantías y de endeudamiento, que serán de aplicación a cada una de las Entidades”.

Art. 9: “Los Presupuestos Generales de las Entidades locales incluirán una Norma de Ejecución Presupuestaria que contendrá la **adaptación** de las disposiciones generales en materia presupuestaria a la organización y circunstancias de la propia Entidad, así como aquellas otras necesarias para su acertada gestión, estableciendo cuantas prevenciones se consideren oportunas y convenientes para la mejor realización de los gastos y recaudación de los recursos, sin que pueda modificar lo legislado para la administración económica, ni comprender preceptos de orden administrativo que requieran legalmente procedimientos y formalidades específicas distintas de lo previsto para el Presupuesto”.

## 1.OINARRIA.- DENBORA-EREMUA ETA EREMU FUNTZIONALA

Arau honek Aurrekontuaren indarraldi berbera izango du. Azken hau luzatuko balitz, luzapen-aldiak iraun bitartean aginduko du Arauak.

Erakunde Autonomoetako Aurrekontuak betetzeko ere aplikagarria izango da, oro har, Arau hau, bere garaian zehaztuko diren berezitasunak kontuan izanik.

## BASE 1ª.- ÁMBITO TEMPORAL Y FUNCIONAL

La presente Norma tendrá la misma vigencia que el Presupuesto. En caso de prórroga del mismo, esta Norma regirá mientras dure dicho período de prórroga.

Asimismo, será de aplicación con carácter general a la ejecución de los Presupuestos de los Organismos Autónomos, teniendo en cuenta las particularidades que oportunamente se detallarán.

## 2.OINARRIA.- AURREKONTU OROKORRA OSATZEN DUTEN AURREKONTUAK

Aurrekontu Orokorra honela osatzen da:

## BASE 2ª.- PRESUPUESTOS QUE INTEGRAN EL GENERAL

El Presupuesto General queda integrado por los siguientes:

| | |
|---|---|
| **Udala**<br>Ayuntamiento | **Gastuak/**Gastos: **22.049.127,35**<br>**Diru-sarrerak/**Ingresos: **22.049.127,35** |
| **Euskaltegia** | **Gastuak**/Gastos: **566.860,00**<br>**Diru-sarrerak**/Ingresos: **566.860,00** |
| **Pasaia Musikal** | **Gastuak**/Gastos: **881.000,00**<br>**Diru-sarrerak**/Ingresos: **881.000,00** |
| **Aurrekontu Bateratua**<br>Presupuesto Consolidado | **Gastuak**/Gastos: **22.941.154,35**<br>**Diru-sarrerak**/Ingresos: **22.941.154,35** |

## 3.OINARRIA.- KREDITUAK: LEGEAREKIKO LOTURA MAILA ETA HANDITZEKOAK DIREN KREDITUAK.

### 3.1.-LEGEAREKIKO LOTURA MAILA

Baimendutako kredituak murriztaileak eta lotesleak dira. Honela gelditzen dira lotura juridikoen mailak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 19. eta 20. artikuluen arabera:

I., III. eta IX. kapituluak:

Kapitulu mailan. Eta III eta IX kapituluak elkarren artean.

II., IV. eta VI kapituluak:

II. kapitulua azpikontzeptu mailan:
220-01 bulego materiala
221-01-energia hornidura.
221-02-ura.
221-04-erregai hornidura.
Aseguruei dagozkien kontu-sailak, organo eta kontzeptuaren arabera lotuko dira: 01.224
Oarsoaldeari dagozkion urteko ekarpenaren kontu-sailak, organoaren eta kontzeptuaren arabera lotuko dira: 02.470. Lotutako atalean 0 euroko saldoa duten kontu-sailak sortu ahal izango dira, urteko kudeaketa planaren ildoetara hobeto egokitzeko.

Hiri-hondakin solidoen kudeaketari dagozkion gastu kontu-sailak (S. Markos Mankomunitatea) azpiprograma funtzional mailan lotuko dira (16220).
Kirol arloko azpiprograma funtzionalak (34100 / 34201/ 34202/ 34203) beraien artean lotuko dira, organoaren eta kapituluaren arabera.

## BASE 3ª.- LOS CRÉDITOS: SUS NIVELES DE VINCULACIÓN JURÍDICA Y CRÉDITOS AMPLIABLES.

### 3.1.-NIVELES DE VINCULACIÓN JURÍDICA

Los créditos autorizados tienen carácter limitativo y vinculante. Los niveles de vinculación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 19 y 20 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, quedan establecidos de la manera siguiente:

Capítulos I, III y IX:

A nivel de capítulo. Y los capítulos III y IX entre sí.

Capítulo II, IV y VI:

El capítulo II a nivel de subconcepto:
220-01-material de oficina
221-01-suministro energía.
221-02-agua.
221-04-suministro combustible.
Los gastos relativos a Seguros, se vincularán según órgano y concepto: 01.224
Los gastos relativos a la aportación económica anual a Oarsoaldea, se vincularán según órgano y concepto: 02.470. Se podrán crear partidas con saldo 0 dentro de la vinculación más acordes a las líneas plan de gestión anual aprobado.

Las partidas de gastos de Gestión de residuos sólidos urbanos (Mankomunidad S. Markos) estarán vinculadas a nivel de subprograma: 16220.
Los subprogramas funcionales asociados a Deportes (34100/ 34201/ 34202/ 34203) se vincularán entre si, según órgano y capítulo.

Gainerakoak, organoaren, kapituluaren eta azpiprograma funtzionalaren mailan.

VII. eta VIII. kapituluak:

Aurrekontuko partida mailan.

VI. Kapitulua: salbuespenak

Badiaren biziberritzerako edo antzeko helburuetarako beste administrazioen finantzaketa jasotzen duten Hitzarmenak betetzeko sortzen diren inbertsioko kontu-sailak, Hitzarmenaren testuarekin eta ondoren izan ditzaketen aldaketekin bat, beraien artean lotuta egongo dira. Eta hori guztia, aurrekontu-soberakinak (esleipenak eta/edo beheranzko likidazioak) proiektu batzuetatik besteetara birkokatzeko eta Hitzarmenean onartzen diren jarduera berriak aldatzeko edo sartzeko. Lotura horiek maila teknikoan egiteko, sail berri bat sartu ahal izango da Sareko programan. Organiko horren gastuak baimentzeko arduradun teknikoak eta politikoak gai horri dagozkionak izango dira.

Erakunde Autonomoetan (patronatuak):

Araubide orokorra: kapitulu mailakoa izango da.

VI. kapituluan, berriz, partida mailakoa.

**3.2.-HANDITZEKOAK DIREN KREDITUAK. 20/2003 FAren 24. artikulua**

Handitzekoak diren gastuen kontu-sailak “Z” ikurrarekin agertzen dira aurrekontuan (zabalgarriak):

Resto, a nivel de órgano, capítulo y subprograma funcional.

Capítulos VII y VIII

A nivel de partida presupuestaria.

Capítulo VI : Excepciones:

Las partidas de inversiones creadas para dar cumplimiento a Convenios con financiación de otras administraciones para la Regeneración de la Bahía o similares estarán vinculadas en concordancia con el texto mismo del Convenio y sus modificaciones. Y ello, a los meros efectos de recolocar los excedentes presupuestarios (adjudicaciones y/o liquidaciones a la baja) de unos proyectos a otros y la modificación o la introducción de nuevas actuaciones que se aprueben en el Convenio. Para realizar dichas vinculaciones a nivel técnico, se podrá incorporar un nuevo departamento en el programa Sareko. Los responsables técnicos y políticos para autorizar los gastos de dicha orgánica serán los que correspondan por la materia.

Para el caso de los Organismos Autónomos (Patronatos):

El régimen general: será a nivel de capítulo.

El capítulo VI a nivel de partida.

**3.2.-CRÉDITOS AMPLIABLES. Art. 24 NF 21/2003**

Las partidas de gasto ampliables aparecen en el presupuesto con el carácter “A”:

| **Gastuen kontu-saila**<br>Partida gasto | **Sarreren kontu-saila**<br>Partida ingreso |
|---|---|
| **Publizitatea /** Publicidad<br>*Partida zabalgarria, kontzeptu hori dela-eta egindako likidazioen arabera (aintzatetsitako eskubideak).*<br>*Partida ampliable, según la liquidación por dicho concepto (derechos reconocidos).* | **Diru-itzulketak /** Reintegros (orgánica 08).<br>*Kontzeptu horretan egindako likidazioen (aintzatetsitako eskubideak) arabera.*<br>*En función de las liquidaciones (reconocimiento derechos) realizados por tal concepto.* |
| **Betearazte subsidiarioak /** Ejecuciones subsidiarias<br>*Partida zabalgarria, kontzeptu horrengatik egindako likidazioen arabera (aintzatetsitako eskubideak).* | **Betearazte subsidiarioak /** Ejecuciones subsidiarias<br>*Partida zabalgarria, kontzeptu horrengatik egindako likidazioen arabera (aintzatetsitako eskubideak).* |

| | |
|---|---|
| *Partida ampliable, según la liquidación por dicho concepto (derechos reconocidos).* | *La partida tendrá este carácter de ampliable, en función de las liquidaciones (reconocimiento de derechos) realizadas por tal concepto.* |
| **Urbanizazioak /** Urbanizaciones | **Urbanizazio kargak /** Cargas de Urbanización |
| **Udalaren lurzoru-ondarea /** Patrimonio Municipal del Suelo | **Hirigintza-aprobetxamenduak /** Aprovechamientos Urbanísticos |
| **KEEL: Haur Eskola eta Arrokaundieta Aterpetxea** | **Dagozkien tasak /** Tasas correspondientes |
| **Herrietako jaiak, Inauteriak, Olentzero /** Fiestas Patronales, Carnavales, Olentzero | **Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa (jaietako salmenta-postu ibiltarien partida berezia bakarrik) /** Utilización privativa dominio público (sólo partida específica puestos de venta ambulantes fiestas) |
| **Garraio-zerbitzua (ibilgailuak erretiratzeko garabia)** Servicio de transporte (grúa retirada vehículos) | **Ibilgailuak geldiarazi, erretiratu eta zaintzea** Inmovilización, retirada y custodia de vehículos |
| **Donibaneko kulturgunerako laguntza teknikoa** Asistencia técnica para Kulturgune de Donibane | **Dagozkien tasak** Tasas correspondientes |
| **Ur hornidurak** Suministro de agua | **Tasak ur hornidura PPA (ezohiko kontsumoak)** Suministro de agua APP (consumos extraordin.) |
| **Langileen kontsumo maileguak** Préstamos consumo personal | **Langileen kontsumo maileguak** Préstamos consumo personal |
| **Hilerriak eta hileta zerbitzuak: KMK makineria eta instalazioak** Cementerios y servicios funerarios:RMC maquinaria e instalaciones | **Hilerriko zerbitzuak** Servicios funerarios |
| **Udalaren lurzoru-ondarea** Patrimonio Municipal del suelo<br><br>*Partida zabalgarria, kontzeptu horrengatik egindako likidazioen arabera (aintzatetsitako eskubideak).* | **Nabarra Bouako kanona** Canon parking Nabarra Boua<br><br>*Partida ampliable, según la liquidación por dicho concepto (derechos reconocidos).* |
| **Kostu eta gastu juridikoak** Costas y gastos jurídicos | **Kostu eta gastu juridikoen itzulketa** Devolución de Costas y Gastos Jurídicos |

**3.2.1-UDALAREN LURZORU-ONDAREA**

**Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 114. artikuluan xedatzen du helburu honetarako aurrekontuak jaso beharreko kreditua. Horri dagokionez, Nabarra Boua plazako parkingean lortzen diren diru-sarrerak udalaren lurzoru-ondarera bideratuko dira.**

**4.OINARRIA.- AURREKONTUEN KREDITUAK ALDATZEKO ARAUBIDEA.**

Kredituak aldatzeko proposamen orok eragindako programa funtzionala adierazi beharko du, eta egin beharreko **ekintzetan** eta lortu beharreko **helburuetan** izango duen **eragina** adierazi beharko du.

**3.2.1-PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO**

**La ley 2/2006 del 30 de junio en su artículo 114 dice que para este fin el presupuesto tiene que disponer de crédito suficiente. Por ello, los ingresos obtenidos en el parking de Nabarra Boua se destinarán a patrimonio municipal del suelo.**

**BASE 4ª.- RÉGIMEN DE MODIFICACIONES DE LOS CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS**

Toda propuesta de modificación de créditos deberá indicar el programa funcional afectado y expresar la **incidencia** tanto en las **acciones** a realizar como en los **objetivos** a conseguir.

Kreditu aldaketa egiteko proposamenak, gastuari dagokion arduradun politikoaren sinadura beharko du, aurrekontuaren sailkapen organikoaren arabera (kontu-saileko lehenengo 2 digituak).

La propuesta de modificación de créditos deberá presentarse firmada por el responsable político del gasto, en atención a su clasificación orgánica (primeros 2 dígitos de la partida presupuestaria).

4.1.- Kreditu globala ( 21/2003 FAren 23 art.)

4.1.- Crédito global(art.23 NF 21/2003)

Toki erakundearen administrazioaren aurrekontuko gastuen orriaren barruan, ordainketa kreditu globala sartu ahal izango da, ordainketarako beste kreditu batzuen zuzkiduraren askiezak betetzeko edo zuzkidurarik ez duten beharrizanei aurre egiteko, bai eta foru arau honetan xedadutakoaren arabera zabalgarritzat hartzen diren kredituak finantzatzeko ere. Horrela eratutako kreditu globalaren zuzkidura ez da toki erakundearen administrazioaren aurrekontuko ordainketa kredituen zenbateko osoaren % 5 baino gehiago izango, zenbateko horren barruan kreditu globalaren beraren zuzkidura dagoela.

Dentro del estado de gastos del presupuesto de la Administración de la Entidad Local, podrá incluirse un crédito de pago global para atender las insuficiencias en las dotaciones de otros créditos de pago o para hacer frente a nuevas necesidades para las que no exista dotación, así como para la financiación de los créditos calificados como ampliables de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral. La dotación del crédito global así construido no superará el 5% del importe total de los créditos de pago del presupuesto de la Administración de la Entidad Local, incluida la dotación del propio crédito global.

Kreditu globalak honako prozedura hau bete behar du:

El crédito global queda sujeto al siguiente procedimiento:

a) Ezin da zuzenean kreditu global horren aurka gastu baimenik eman.

a) No podrán autorizarse gastos directamente contra dicho crédito global.

b)Kreditu globalak jatorritik erabili behar dira beti; kreditu globala ezin da inolaz ere gehitu, gero udalbatzak baimendu eta aldaketa onetsi ezean, beti ere hasierako ordainketa kredituen %5eko muga errespetatzen dela.

b) La utilización del crédito global deberá ser siempre de origen, no pudiéndose aquel incrementar en ningún caso, salvo por aprobación posterior de la correspondiente modificación, autorizado por el Pleno, respetando siempre el límite de 5% de los créditos de pago iniciales.

c) kreditu globaletik egiten diren transferentziei ez zaizkie aplikatuko foru arauaren 29. artikuluko xedapenak.

c) No resultarán de aplicación a las transferencias desde el crédito global las disposiciones del artículo 29 de la Norma Foral.

Kreditu globala erabili ahal izateko baimena udalburuak eman beharko du, Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak horri buruz ezartzen duenari kalte egin gabe.

Las disposiciones del crédito global deberán ser autorizadas por el Presidente de la Corporación, salvo lo que pueda establecer al respecto la Norma de Ejecución Presupuestaria.

4.2.- Kreditu transferentziak (21/2003 FAren 29-30 art.). Dirulaguntza izendunei eragiten dieten kreditu transferentziak udalbatzarrak onartuko ditu.

4.2.- Transferencias de créditos (arts. 29-30 NF 21/2003). Las transferencias de crédito que afecten a subvenciones nominativas se aprobarán por pleno.

4.3.- Kreditu gaikuntza (21/2003 FAren 31. art.)

Udal ondasunetan kalteak sortzen direnean, aseguruetatik jasotzen diren kalte-ordainek kalte hori konpontzeko kreditua atera den aurrekontuko partida gehituko dute.

4.3.- Habilitación de créditos (art. 31 NF 21/2003)

Los ingresos provenientes de pagos que tengan como objeto restituir aquellos gastos derivados de desperfectos en el patrimonio o dominio público municipal incrementarán las partidas origen que sirvieron para repararlas.

4.4.- Kreditu txertaketa (21/2003 FAren 32. art.)

Alkateak du horiek onartzeko eskuduntza.

4.4.- Incorporación de créditos (art. 32 NF 21/2003)

La competencia de su aprobación se residencia en la Alcaldesa.

4.5.- Baliogabetzearen ziozko baxak (21/2003

4.5.- Bajas por anulación (art. 33 NF 21/2003)

FAren 33. art.)

4.6.- Kreditu gehigarriak (21/2003 FAren 34. art.). Alkateak eskumena izango du urtean zehar eta metatzeagatik aurrekontuaren %5 baino gehiagoko gehikuntza ez dakarten kreditu gehigarrietarako.

4.6.-Créditos adicionales (art. 34 NF 21/2003). Se atribuye al presidente la competencia para la aprobación de aquellos créditos adicionales que acumulativamente al año no supongan un incremento superior al 5% del presupuesto.

4.7.- Hitzarmenen araubidea (21/2003 FAren 35. Art.).

4.7.-Régimen de convenios (art. 35 NF 21/2003)

## 5.OINARRIA.- GASTUA KUDEATZEKO PROZEDURA

## BASE 5ª.- PROCEDIMIENTO DE EJECUCIÓN DEL GASTO

Gastuen Aurrekontua kudeatzeko faseak

Gastuen aurrekontua kudeatzeko honako pausoak emango dira:

a)Gastua baimentzea.
b)Gastua erabiltzea.
c)Ordaintzeko betebeharra onartzea.
d)Ordainketa agintzea.
e)Ordainketa egitea.

Fases de la ejecución del Presupuesto de gastos

La gestión del Presupuesto de gastos se realizará en las siguientes fases:

a)Autorización del gasto
b)Disposición del gasto.
c)Reconocimiento de la obligación.
d)Ordenación del pago.
e)Realización material del pago.

### Gastua baimentzea eta gastu-xedapena

Administrazio-kontratuei dagozkien gastuak egiteko baimena emateari eta horiek erabiltzeari dagokionez, aplikatu beharrekoa da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian, *Toki-erakundeetarako kontratazio-arau bereziak* atalean ezarritakoa:

a) Toki Entitatearen alkate-lehendakariari dagozkio, kontratazio-organo den neurrian, kontratu guztien eskumenak, administrazio kontratuenak nahiz kontratu pribatuenak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

b) Aurreko paragrafoan aipatu ez diren kontratuei dagokienez, toki-erakundeak halakoren bat egin

### Autorización y disposición de gastos

Respecto a la autorización y disposición de gastos relativa a los contratos administrativos, será de aplicación lo establecido en la *Disposición Adicional Segunda. Competencias en materia de contratación en las Entidades Locales* de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público:

a) Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades Locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

b) Corresponden al **Pleno** las competencias como órgano de contratación respecto de los

behar badu, **Udalbatzarena** izango da horiek kontratatzeko eskumena, kontratazio-organoa denez.

contratos no mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad local.

Bestalde **Zinegotzi ordezkariek** urte hasieran baimen eskaera (A) aurkeztu beharko dute urtean zehar egin beharreko gastuetarako, eta AD erreferentzia jada kontratatuak dauden zerbitzuetarako eta gastu finkoetarako.

Por otro lado las **concejalas delegadas** deberán solicitar al inicio de año, la solicitud de autorizado (A) para los gastos previstos realizar a lo largo del ejercicio, así como la referencia AD para los servicios ya contratados y los gastos fijos.

Betebeharrak onartzea

Udalburuak onartuko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Aurreko ekitaldietan egindako gastu baten ondorioz betebeharrak onartzen direnean, eta konpromiso horretarako baimenik eman ez bada, horren onarpena Udalbatzari dagokio (epaiketaz kanpoko kredituak onartzea).

Kontratistek egiten dituzten fakturetan, gutxienez, hauek jaso behar dira:

- ✓ Udalaren identifikazioa (izena, IFK).
- ✓ Kontratistaren identifikazioa.
- ✓ Faktura-zenbakia eta fakturaren data.
- ✓ Hornidura edo zerbitzuaren deskribapen nahikoa.
- ✓ Enkargua egin zuen zentro kudeatzailea (saila).

Fakturak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, gero Kontu-hartzailetzara helaraziko dira (kontrol deszentralizatua), eta handik dagozkien sailetara bideratuko dituzte. Sailetan fakturak adostu ondoren, berriz ere Kontu-hartzailetzara bideratuko dira, fiskalizatu eta kontabilizatzearren; eta dagokion organoan onartzeko aurkez daitezkeen faktura guztien zerrenda egingo da.

Obra-ziurtapenei dagokienez, horiei dagozkien fakturak erantsi behar zaizkie, eta bi dokumentuek zerbitzu teknikoen onespena izan behar dute.

Reconocimiento de obligaciones

Corresponderá a la Presidenta el reconocimiento de las obligaciones derivadas de gastos legalmente adquiridos.

Cuando el reconocimiento de obligaciones sea consecuencia necesaria de la efectiva realización de un gasto de ejercicios anteriores, sin que se hubiera autorizado el compromiso del mismo, su aprobación corresponderá al Pleno (expediente de reconocimiento extrajudicial de créditos).

Las facturas expedidas por los contratistas deberán contener como mínimo:

- ✓ Identificación del Ayuntamiento (nombre, CIF)
- ✓ Identificación del contratista
- ✓ Fecha y número de factura
- ✓ Descripción suficiente del suministro o servicio
- ✓ Centro gestor (departamento) que efectuó el encargo.

Se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento, para pasar a Intervención (control descentralizado), que las remitirá a los departamentos correspondientes. Una vez conformadas por éstos, se trasladarán nuevamente a Intervención a efectos de su fiscalización y contabilización, elaborándose relación de todas aquellas facturas que pueden ser elevadas a la aprobación del órgano competente.

Respecto a las certificaciones de obra, será preciso adjuntar a las mismas las correspondientes facturas, debiendo constar la conformidad por parte de los Servicios Técnicos en ambos documentos.

Ekonomiaren eta administrazio-arintasunaren arrazoiengatik administrazio-egintza bakar batean fase bat baino gehiago metatzen direnean, fase horiek administrazio-egintza bereizietan erabakitzen diren ondorio berberak izango ditu.

Cuando por razones de economía y agilidad administrativa se acumulen varias fases en un solo acto administrativo, el mismo producirá los mismos efectos que si dichas fases se acordaran en actos administrativos separados.

Ordainketa agintzea

Udaleko ordainketak agintzea alkatearen eskumena da.

Ordainketak, oro har, Diruzaintzak egiten dituen ordainketa-aginduen zerrenden arabera aginduko dira, funtsak erabiltzeko planarekin bat, eta lehentasuna izango dute pertsonaleko gastuek eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharrek.

Ordenación del pago

La ordenación de pagos del Ayuntamiento es competencia de la Alcaldesa.

La ordenación de pagos, con carácter general, se efectuará en base a relaciones de órdenes de pago que elaborará la Tesorería, de conformidad con el plan de disposición de fondos y la necesaria prioridad de los gastos de personal y obligaciones contraídas en ejercicios anteriores.

6.OINARRIA.- OARSOALDEA SA-REN ALDEKO EKARPENEN ARAUBIDEA.

1.- Ordainketak egingo dira aurrekontuan Oarsoalderako izendatutako ekarpenak aintzat hartuta. Nolanahi ere, programen azken ordainketa likidazioaren bidez egingo da, eta likidazioa kalkulatuko da ekitaldian egin eta egiaztatutako gastuen arabera.

2.- Proiektuak gauzatzeko udal ekarpenari dagokionez, Udaleko ordezkariak Oarsoaldeko Administrazio Kontseiluari jakinaraziko dio korporazioak zer erabaki duen ekarpenen erabilerari buruz. Proiektu batzuen defizitak beste batzuen superabitekin konpentsatuko dira, edo proiektu jakin batzuen garapena hurrengo ekitaldira luzatuko da, betiere aurrekontuaren kopuru osotik inola ere atera gabe.

BASE 6ª.- RÉGIMEN DE APORTACIONES A OARSOALDEA S.A.

1.- Los pagos se realizarán atendiendo a las aportaciones a Oarsoaldea consignadas en el Presupuesto. En todo caso, el último pago de los programas se hará efectivo en concepto de liquidación calculado sobre la efectiva acreditación de los gastos realizados a lo largo del ejercicio.

2.- En cuanto a la aportación municipal para la ejecución de los proyectos, el/la representante del Ayuntamiento, trasladará al Consejo de Administración de Oarsoaldea la decisión de la Corporación sobre el destino final de las aportaciones, procediendo a compensar déficits de unos proyectos con superávits de otros o bien, prorrogar la ejecución de algunos de los proyectos concretos durante el siguiente ejercicio, en el estricto marco de la cantidad global presupuestada.

7.OINARRIA.- ZURITU BEHARREKO GASTUAK eta KUTXA FINKOAREN AURRERAKINAK

Zuritu beharreko gastuak:

Beharrezko erosketa edo zerbitzuak egiteko, frogatu beharreko ordainketa aginduak emango

BASE 7ª.- PAGOS A JUSTIFICAR y ANTICIPOS DE CAJA FIJA

Pagos a justificar:

Solo se expedirán órdenes de pago a justificar

dira, soilik ordainketa horiek kutxa finkoko aurrerakinetik ordaindu ezin direnean, eta aurretiaz egiaztagiriak eduki ezin direnean.

Alkateari dagokio baimena ematea.

Zuritu beharreko ordainketa gisa emandako zenbateko guztien zuriketa hiru hilabeteko epean egingo da, ordainketa egiten den egunetik zenbatzen hasita. Udal Kontu-hartzailetzak Ogasun Batzordeari behar bezala zuritu ez diren kontuen berri emango dio, dagozkion erantzukizunak eskatzeko asmoz.

Jaiak antolatzeko barrutietako zinegotzi ordezkariei kontura egindako ordainketak "zuritu beharrekoak" izango dira. Dagokion fakturaren bidez justifikatu ezin diren zenbatekoak, barrutietako zinegotzi ordezkarien idatzien bidez zurituko dira, alkateak berariaz baimendu ondoren. Aurkeztutako justifikazioen eta jaietako likidazioen berri emango zaio Ogasun Batzordeari, ekitaldi bakoitzeko likidazio-espedientearekin batera.

**Kutxa finkoaren aurrerakinak:**

Kutxa finkoko aurrerakinak gastuak baimentzeko eskumena duen agintariaren ebazpenean oinarrituz egingo dira, eta Diruzaintzaren kontura ordainduko dira.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek gastuak zuritu beharko dituzte, berriz funtsak jarri behar direnean. Hori, gehienez ere, hiruhileko naturalen bukaeran egingo da eta, nolanahi ere, aurrekontu-ekitaldia amaitu aurretik.

Likidazioarekin batera, egin diren ordainketen agiri guztiak aurkeztu behar dira, dagokion arloko zinegotziaren oniritziarekin.

Funtsak berriz jartzeko Diruzaintzaren kargura egiten diren ordainketa-aginduak, zuritutako kopuruei dagozkien aurrekontu-kontzeptuak aplikatuz egingo dira.

Kutxa finkoaren aurrerakinak erabiltzeko

con motivo de adquisiciones o servicios necesarios, cuyo pago no pueda realizarse con cargo a los anticipos de caja fija y en los que no sea posible disponer de comprobantes con anterioridad a su realización.

La autorización corresponde a la Alcaldesa.

La justificación de todas las cantidades libradas en concepto de pagos a justificar se realizará en el plazo de tres meses a partir de la fecha de pago. La Intervención municipal dará cuenta a la Comisión de Hacienda de las cuentas indebidamente justificadas con la finalidad de que se exijan las responsabilidades que procedan.

Las entregas realizadas a cuenta a las Concejales Delegadas de Distrito para organización de fiestas se realizará con carácter de "a justificar". Los importes que sean imposibles de justificar a través de su correspondiente factura, lo serán, previa autorización expresa de la Alcaldesa, por escrito de la Concejal Delegada de Distrito respondiendo por los gastos. De las diversas justificaciones presentadas así como de las correspondientes liquidaciones de fiestas se dará cuenta a la Comisión de Hacienda, junto con el expediente de liquidación de cada ejercicio

**Anticipos de caja fija:**

Los anticipos de caja fija se realizarán en base a resolución de la autoridad competente para autorizar los gastos y se aplicarán o abonarán con cargo a la Tesorería.

Las perceptoras de anticipos de caja fija justificarán los gastos atendidos a medida que sus necesidades de Tesorería aconsejen la reposición de fondos utilizados, que será, como máximo, al final de cada trimestre natural, y, en todo caso, antes de la finalización del ejercicio presupuestario.

La liquidación deberá ir acompañada de todos los justificantes de pago efectuados, con el Visto Bueno de la Concejal de Área correspondiente.

Las órdenes de pago de reposición de fondos a la Tesorería se harán con aplicación a los conceptos presupuestarios a que corresponden las cantidades justificadas.

baimena ematen zaie zerbitzu hauei:

Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Arloa: saileko buruari, presakoak eta ezohikoak diren gastuak ordaintzeko: 600 €-raino.
Udaltzaingoaren Arloa: udaltzainburuari, garraioak, presakoak eta ezohikoak diren gastuak ordaintzeko eta pertsonen mantenurako: 600 €-raino.
Udalbatzako alkatea: ordezkaritza-gastuak, dietak eta lokomozioa ordaintzeko: 1.200 €-raino.
Sukaldeko Lanbide Hastapeneko Lantegia: monitore sozio-laboralari, praktikak egiteko osagaiak erosteko: 1.200 €-raino.

Sailen izenean dauden kontuen titular direnek ekitaldi bakoitzean egindako mugimenduen berri eman beharko dute hiru hilean behin eta, horrela izan ezean, ekitaldi bakoitzaren bukaeran.

Kreditu txartel bat izatea baimentzen da, Diruzaintza Sailari atxikia, Internet bidezko erosketak egiteko, eta 3.000 €-ko diru mugarekin. Ordainketa horiek egiteko, hiru sinadura baimendunak (alkatearena, kontu-hartzailearena eta diruzainarena) behar dira aldez aurretik.

Se autoriza a hacer uso de anticipos de caja fija a los siguientes servicios:

Área de Servicios, Redes y Mantenimiento: Jefe del Área, para gastos de carácter urgente y excepcional: 600 €.
Área Guardia Municipal: Jefe de la Guardia Municipal, para el pago de portes, gastos de carácter urgente y excepcional y para manutención de personas: 600 €.
Alcaldesa de la Corporación, para gastos de representación, dietas y locomoción: 1.200 €.
Taller de Iniciación Profesional de Cocina: Monitora Socio-Laboral, para la compra de ingredientes para las prácticas: 1.200 €.

Estarán obligadas a la misma justificación trimestral, y en todo caso, al final de cada ejercicio, las titulares de cuentas a nombre de los distintos departamentos municipales respecto de los movimientos habidos en las mismas.

Se autoriza la existencia de una Tarjeta de Crédito adscrita al Departamento de Tesorería para la realización de compras a través de Internet, con un límite de 3.000 €. Dichos pagos deberán contar con la autorización previa de los tres claveros (Alcaldesa, Interventora, Tesorera).

## 8. OINARRIA.- KONTRATU TXIKIAK:

**8.1. Kontratu txikien arauketa**: kontratu txikien bidezko gastu exekuzioak errespetatuko ditu, betiere, indarrean dagoen legerian eta bereziki SPKLn ezarritako gehienezko mugak, kuantitatiboak eta kualitatiboak.

Kontratu txikiak zenbatekoaren arabera bakarrik definituko dira, SPKLren 118.1 artikuluarekin bat etorriz. Kontratu txikitzat hartuko dira honako hauek:
**40.000 €-ko** (BEZ gabe) zenbatekoa gainditzen ez duten obra kontratuak.
**15.000 €-ko** (BEZ gabe) zenbatekoa gainditzen ez duten bestelako kontratuak.

Kontratu horiek ezin izango dute urtebete baino gehiago iraun, ezin izango dira luzatu eta ezin izango dira prezioak berrikusi.

**8.2. Tramitazioa:**

Espedientea tramitatzeko beharrezkoa izango da

## BASE 8ª.- CONTRATOS MENORES:

**8.1. Regulación de los contratos menores:** La ejecución de gastos mediante contrato menor respetará en todo caso los límites máximos, cuantitativos y cualitativos, establecidos en la legislación vigente, y especialmente en la LCSP.

Los contratos menores se definirán exclusivamente por su cuantía de conformidad con el artículo 118.1 de la LCSP. Tendrán la consideración de contratos menores:
- Contrato de obras cuya cuantía no exceda de **40.000 euros (IVA excluído)**
- Resto de contratos cuya cuantía no exceda de **15.000 euros (IVA excluído)**

Estos contratos no podrán tener una duración superior a un año, ni ser objeto de prórroga ni de revisión de precios.

**8.2. Tramitación:**

La tramitación del expediente exigirá informe del

kontratazio organoaren txostena, kontratuaren beharra arrazoitzen duena, eta SKPLko 118.3 artikuluan xedatutako betetzen dela adierazten duena. Era berean, gastua onartzea eta dagokion faktura eranstea eskatuko da, erregelamenduz ezarritako baldintzak betetzen dituena, eta obra-kontratu txikian, gainera, obren aurrekontua, hargatik eragotzi gabe proiektua eta beharrezko beste agiri batzuk egotea arau espezifikoek hala eskatzen dutenean.

a) <u>1.500 €-ko zenbatekoa gainditzen ez duen</u> kontratu txikiaren espedientearen tramitazioa prozedura honi jarraikiz egingo da:

Gastu proposamena Sarekon dagoen **ESKARIAK atalaren bidez izapidetuko da**. Eskariaren justifikazioa, txosten teknikoa eta 118.3 SKPLko baldintzak barne, saileko arduradun teknikoak sinatuko du aplikazioan eta dagokion Kreditu Atxikipena sortuko da (RCT).

**Gastu-baimena eta esleipena** saileko arduradun politikoak sinatuko du aplikazioan eta horri lotutako **AD** Kontabilitate agiria sortuko da.

b) <u>5.000 €-ko zenbatekoa gainditzen ez duen</u> kontratu txikiaren espedientearen tramitazioan, aurreko paragrafoetan jasotakoaz gain, honako prozedura jarraituko da:

Gastu-proposamena Sarekon dagoen **ESKARIAK atalaren bidez izapidetuko da**. Eskariaren justifikazioa (txosten teknikoa eta 118.3 SKPLko baldintzak barne) saileko arduradun teknikoak sinatuko du aplikazioan (RCT atxikipena).

Gastu-baimena saileko arduradun politikoak sinatuko du aplikazioan.

Eskaera sinatuta dagoenean, arlo kudeatzaileak Kontratazio Arloari jakinaraziko dio, hark ebazpen proposamena presta dezan ESKARIAK atalean dagoen informazioa baliatuz.

Alkatearen **DEKRETUZ** onartuko da, beraz, 5.000 eurotik gorako kontratu txikia, eta Kontu-hartzailetzari jakinaraziko zaio, esleipena kontabilizatu (AD Kontabilitate agiria) eta

